

EUSKAL MENDIZALETASUNA

Aranzadi eta EMMOA Fundazioa, mendiaren historia zati bat bildu, kontserbatu, zaindu eta erakusteko bat eginda

Euskal mendizaletasuna babesteko». Hala bataiatu dute EMMOA Fundazioak (Euskal Mendizale-tasunaren Museoa) eta Aranzadi Zientzia Elkarteak sinatu duten hitzarmena, iragan asteko asteartean, zientzia elkar-tearen egoitzan, eginiko agerraldi batean izenpetu zutena.

Jokin Otamendi Aranzadiren lehendakariordea, Txomin Uriarte EMMOA Fundazioaren lehendakaria eta Joseba Ugalde Euskal Mendizale Federazioko lehendakaria izan ziren hitzar-mena izenpetu zutenak, baina agerraldian izan ziren, besteak beste, Gregorio Ariz, Pili Ganuza, Juanjo San Sebastian edota Alex Txikonen mailako hainbat eus-kal mendizale ere.

Hitzarmena, beraz, memoria historikoan espezializatua dago-en elkarte batek eta Euskal Men-dizaleen Federazioaren babespe-an mendiak utzi duen ondare historikoa biltzeko asmoz jaio den fundazioak sinatu dute. Hel-buru nagusia 100 urtez baino

 **MENDIA /** Aimar Etxeberria Korta

Harreman estua eta antzinakoa da euskal herritarrek mendiarekin dutena. Horrek, urteen poderioz, hainbat material sortzea eragin du: argazkiak, dokumentuak, kirol materiala... Bada material hori guztia jaso, kontserbatu, zaindu eta erakusteko bat egin dute Aranzadi Zientzia Elkarteak eta EMMOA Fundazioak.

gehiagoz alpinistek, eskalatzaile-ek, eskiatzaileek eta abarrek sor-tutako milaka argazki, doku-mentu eta kirol material gorde eta herritarrek kontsultatu ahal izateko moduan jartzea litzate-ke. Hori, Aranzadik Donostiako Intxaurrondo auzoan izango duen egoitza berrian egin ahal izango litzateke.

Juantxo Agirre Aranzadi Zien-tzia elkarteak idazkari nagusiak hartu zuen hitza agerraldian. «Momentu historiko bat» bezala definitu zuen hitzarmenaren izenpetzea, eta akordioa zientzia elkarteak euskal mendizaletasu-narekin duen konpromisoak bultzatu duela gaineratu zuen.

Zentzu horretan, gogoratu zuen Aranzadi Aralarko mendilerroan jaio zela, hots, betidanik izan du-tela harremana mendiarekin, «honen ikerketa zientifikoare-kin», zehatzago esateko.

Hitzarmenaren ondorioz, ur-teetan zehar mendia zapaldu du-ten belaunaldi ezberdinen «se-kretu, usain, bizipen eta abarrak» jaso eta hurrengo be-launaldiei transmititzeko mo-duan izango dira, Agirrerren us-tez. Ildo horretan, memoria historikoa jasotzeari dagokionez urteetan pilatutako esperientzia guztia jarriko du EMMOAren es-ku Aranzadik: «Lagunduko dugu argazki zaharrak jasotzen, testi-gantzak hartzen, dokumentazioa gordetzen eta, hein batean, mo-du estandarizatu batean gordeko ditugu». Kontuak kontu, aurre-ratu zuen jada euskal mendiza-letasunaren museoa osatzeko materialen bilketa lan horretan murgilduta daudela, baina ez dute aurreikusten epe laburrean museoa irekitzeko aukerarik. Aurrez aipatu egoitza berria –In-txaurrondon kokatuko dena– Es-

tatu espainiarraren jabegoko eraikin bat da eta Ministro Kon-seiluaren sinadura baten espe-roan dira espazioaren erabilera Aranzadi Zientzia Elkartearen es-ku izatera igaro dadin.

BIDE LUZE BATEN HASIERAN

Behin martxan, baina, mendiari loturiko ondasunei dagokionez museoa erreferentzia gune ga-rrantzitsu bilakatuko dela adie-razi zuen: «Hori da gure apus-tua. Mendiak ezagutzeaz batera, bertan izan diren mendizaleak ezagutzeko aukera ere emango digu museoak».

Antxon Iturriza mendi-aditu, kazetari eta EMMOAko kideak hartu zuen hitza, berriz, funda-zioaren izenean. Honen ibilbide laburra –mendizaletasunak sor-tutako ondarea kudeatu eta kon-tserbatzeaz arduratuko zen ino-lako erakunderik ez zegoela-eta, ekimen partikularrari esker era-tu zuten fundazioa– azpimarra-tu zuen, baina pozik agertu zen Aranzadi bezalako elkarte bate-kin hitzarmen bat sinatu izana-gatik. «Hainbat ate jo ditugu es-

MENDIAREN HISTORIAREN ZATI BAT, IRUDITAN



Euskal herritarrek duela urte asko-tatik dute lotura estua mendiare-kin. Horrek, nola-bait, eragin du urteen poderioz hainbat ma-terial sortzea, izan argazki, dokumentu edo kirol mate-rial. Hori horrela, eta ondare hori guztia desagertzeko arriskuan dagoela jabetuta, EMMOA Fundazioak euskal mendizaletasunaren histo-riarekin zerikusia duen onda-re material oro bildu, kon-tserbatu, zaindu, dibulgatu eta erakusteko konpromisoa

hartu du. Horretan bidelagun izango du Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Donazioen figuran oinarrituko da osatu asmo duten museoa, eta honakoak barne-bilduko ditu: mendi gaietan berezitutako liburutegi handi bat, dokumentu artxibategi bat, fototeka bat eta balio histo-riko berezia duten piezen gordetegi bat. Horrek guztiak osatuko du Mendi Dokumen-tazioaren Euskal Zentroa, «EMMOAren helburuen jo-muga dena eta euskal gizarte-aren laguntzarekin errealtate bihurtzea espero duguna».



Aranzadi Zientzia Elkarteko eta EMMOA Fundazioko kideez gain, euskal mendizale historiko anitz bertaratu ziren aipatu bi erakundeek elkarren arteko hitzarmena ofizialtzeko egin zuten agerraldira.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

pazio fisiko baten bila, eta gaur, Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako hitzarmenari esker, euskal mendizaletasunaren ondarea salbatzeko proiektuak irtenbide bat duela ikusten dugu», adierazi zuen Iturrizak.

«Askotan entzun izan dugu mendia oso garrantzitsua dela Euskal Herrian, mendia kirol bat baino askoz gehiago dela. Ikusi izan dugu nola goraipatzen diren euskal mendizaleen balentriak, Alex Txikonen azkena adibide», jarraitu zuen. Hori hala, balentria horien guztien atzean 40.000 federatuz osatutako kolektibo bat dagoela nabarmendu zuen, «balioa eman behar zaion kolektiboa». Gauzak horrela, oso luzea izango den bide baten hasieran daudela adierazi zuen: «Mendiak asko du honetatik; luzea izango da gaurtik aurrera egingo dugun bidea, eta ez dakigu nora eramango gaituen». Euren egitekoari dagokionez, gor-



Ezkerreko orrialdean, Federación Vasco Navarra de Alpinismo izenarekin jaio zen Euskal Herriko Mendizale Elkargoaren sortze asanblada, 1924ko maiatzaren 18an Elgetan ospatu zena. Argazki oinaren ezkerrean, euskal espedizio bat Mon Blanc mendira iritsi zen lehen aldia, 1926an. Eskuinean, aldiz, Fortuna kirol elkarteak antolatutako lehenengo mendi martxaren kontrol postu bat, 1941ean.
A. Bandres artxiboa - Fortuna KE artxiboa



detzeaz gain erakutsi egin nahi dutela esan zuen: «Gure historia kaleratu nahi dugu».

Egin beharreko guztia, baina, Antxon Bandres oroimenean izanik egingo dute: «Ziur naiz bizirik balego bera litzatekeela nire tokian legokeena, tribuna honetatik berriketan. Bizirik baltz, ziur naiz bera litzatekeela garatzen ari garen proiektu honen bultzatzaile nagusia».

ESANAHIZ BETERIKO ONDASUNAK

Euskal mendizaleek urteetan zehar sortu eta pilatu dituzten argazki, dokumentu eta kirol materialen donazio bidez funtzionatuko du museoak. Hala, eta Juan txo Agirreren esanak baieztatuz, agerraldia bera nola-baiteko donazio gune bilakatu zen. Hasieran aipatu dugu hitzarmenaren izenpetzean presente zirela hainbat mendizale ere, bada, horietako batzuek eurentzat esanahiren bat duten elementuak donatu zituzten.


Horietako bat izan zen Gregorio Ariz, Nafarroatik Himalaiara egiten ziren espedizioen buruetako bat. Bi ondasun historiko donatu zituen. Batetik, 1979ko maiatzaren 12an Dhaulagiriko gaina egin zuen espedizioari

Nepalgo agintariek emaniko baimen orria. Horrekin batera, gailurra egin izana aitortzen zuen agiri bat ere donatu zuen. Baina, bestetik, eta aipatu espedizioari lotuta, bitxikeria bat ere kontatu zuen. Tontorrera iristean eskutitz bat aurkitu zuten, plastiko baten barruan sartua. Bost orrialdeko eskutitz bat zen, japonieraz idatzia. Eskutitzarekin batera bi argazki zeuden, eurak igo aurreko urtean gailurra egin zuen espedizioari bi taldekiderenak. Guztia hartu eta behera jaitsi zuten, bestelako tontorretako buzoietan aurkitzen zituzten gauzekin egin zuten bezala. «Behin Iruñera iritsita, eskutitza itzuli eta ohartu ginen, agian, ez genuela ongi egin jaistearekin. Eskutitzak zioen bi argazki haiek gure aurreko espedizioari partaide ziren baina gailurra egin ez zuten –entrenamendu saioetan bizia galdu zuten– bi mendizalerenak zirela. Euren familiak espedizioaren esku utzitako bi argazki ziren, tontorrean lurperatuak izan zitezkeen», azaldu zuen Arizek. Gauzak horrela, eta eskutitzak igorlearen helbidea zuela jabetuta, argazkiak bueltan bidali zituzten, mezu gehigarri batekin:



«Esan genien, eurek hala nahi izanez gero, argazkiak tontorrera bueltan eramateaz arduratuko ginela. Ez genuen erantzunik jaso, beraz, argazkirik gabe baina eskutitzarekin geratu ginen». Espedizio hartako kide zen Pili Ganuza ere, 8.000 metroko gailur bat egin zuen lehenengotariko emakumea izanik. Kranpoi batzuk utzi zituen museoaren esku, Pirinioetako eta Alpee-tako gailurrak egiteko erabiltzen zituen kranpoiak.

Kranpoi parearen berezitasuna da lagun batek oparituak izan zirela, mendi tontorrek zapaltzeko gogoia bai baina diru nahikorik ez zuela-eta. «Pirinioetako gailur aunitzetan egon dira. Niretzako oso garrantzitsuak dira eta hemen geratzea nahiko nuke», adierazi zuen Ganuzak. Donazio hunkigarriena, baina, mendian bizia galdu zuen Miriam Garciaren amarena izan zen. Hasteko, esan zuen bera ez zela mendizalea, eta gaineratu



Ezkerreko irudian Loli Lopez Goñi donostiarra, Mont Blanc eta Cervino mendietan gailurra egin zuen lehenengo emakume euskalduna, 1958an. Eskuineko argazkian, berriz, Sheve Peña mendizale donostiarra, 87 urterekin, Kilimanjaroko gaina egin ostean, 1995ean. I. Goikoetxea artxiboa - S. Peña artxiboa



bere alabaz hitz egitea asko kostatzen zaiola: «Gaur, baina, gauza bat soilik ekar nezakeen: bere mendiko federatu txartela. Egun batean, bere gauza guztiak ekartzeko eskatzen didatenean, ekarriko ditut. Bere federatu txartela, bere zenbakia zen nik ulertzen ez nuen hori. Nik ez daukat –jarraitu zuen– mendia- rekin lotutako kontakizunik. Mendiarekiko neukan interes bakarra nire alaba bertara gehiago ez joatea zen. Kuriosoa da. Nik nire ondoan nahi nuen nire alaba, bestelako giro batean, baina esan beharra daukat Miriam mendia-arentzako jaioa zela. Egiaz, mendiaren zati bat zen nire alaba, nirea baino gehiago».

Juanjo San Sebastianek, aldiz, polar bat utzi zuen museoaren esku, K2 mendiko gaina zapaldu zueneko botak zakarrontzira bota ostean: «Duela sei bat urte edo obrak egin genituen etxean. Halakoetan gertatzen den legez, gauza zaharrak botatzeari ekin genion. Tartean ziren K2 mendira igo nintzeneko bota pareak; guztioi gertatzen zaigun moduan, baina, zaharkituak eta egoera kaskarrean zeuden. Hala bota nituen, nire 8 urteko seme-

Donazio bidez funtzionatuko du mendiko materialekin osatua egongo den museoak. Alberto Zerain eta Juanito Oiarzabalek ere egin dute euren donazioa. Ezkerrean, Alberto Zerainek G1 mendiko gailurra egiteko erabili zuen kranpoietako bat. Eskuinean, Juanito Oiarzabalen luzera normaleko azken botak, hanketako hatz guztiak moztu aurrekoak. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



Aranzadik Intxaurrondo auzoan izango duen egoitza berrian egongo da EMMOaren material guztia. Egoitza egokitzeko, baina, Gobernu espainiarraren sinadura baten esperoan daude

Donazio bidez funtzionatuko du Euskal Mendizaletasunaren Museoak. Horren lekuko, Alex Txikon, Alberto Zerain edota Juanito Oiarzabalek egin dute jada euren donazioa

aren harridurarako». Jantzi polarrak ere egin zuen K2 mendiko gaina, eta espedizio hartan kide zuen eta bizia galdu zuen Atxo Apellanizen omenez donatu dio museoari.

Alex Txikon izan zen donazioa egiten azkena. Estaka moduko bat donatu zuen, 22 urte zituela Makalura eginiko hiru asteko espedizio batean aurkitu zuena. Azaldu zuenez, 1970. urtean egin zen lehen aldiz gailurra Makalun, espedizio frantziar baten es-

kutik. Ordukoa omen estaka, mendian gora zela hamabost bat metrora bistatu zuena. Sokatik irteten eta haren bila jo zuen zuzenean. Agerraldian egoterik izan ez bazuten ere, Alberto Zerain eta Juanito Oiarzabalek ere izan zuten keinu bat museoarekin. Kranpoi bat donatu zuen Zerainek, eta luzera normaleko bere azken botak Oiarzabalek, hanketako behatzak moztu ostean luzera txikiagoko botak erabiltzen baititu egun.



Ezkerrean, Dhaulagiriko gaina egin zuen espedizioako kideak. Hura izan zen euskaldunek 8.000 metroko gailur bat egin zuten lehen aldia, 1979an. Eskuinean, Miriam Garcia, 1987an, Yosemite eskalatzen. Nafarroako espedizioa Dhaulagirira - M. Garcia artxiboa

